

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **ordubete eta 35 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	---	20 puntu	35 min. inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min. inguru
	Irakurmena eta idazmena	---	50 puntu	1h 35min
	Entzumena	---	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2007ko maiatza**

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren irratiko albiste bat entzungo duzu. Lasaitzeko tresna bati buruz hitz egingo dute.

Entzun kazetariaren informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. *Non sortu dute bainuontzia?*
 - a. *Hemengo lantegi batean.*
 - b. *Atzerriko lantegi batean.*
 - c. *Atzerriko bainuetxe batean.*

1. Nolakoak dira bainuontziaren neurriak?
 - a. Metro eta erdi luze eta 1,90 zentimetro zabal.
 - b. Bi metro erdi luze eta 1,70 zentimetro zabal.
 - c. Bi metro eta erdi luze eta 1,90 zentimetro zabal.
2. Zenbat ur eta zenbat gatz sartzen da?
 - a. 500 litro ur eta 250 kilo gatz.
 - b. 450 litro ur eta 500 kilo gatz.
 - c. 500 litro ur eta 450 kilo gatz.
3. Gatza eta ura nahasita zer gertatzen da?
 - a. Itsaso Hilaren kolorea hartzen duela urak.
 - b. Gorputza ur gainean geratzen dela.
 - c. Gorputza uretan hondoratu egiten dela.
4. Bainuontzian erlaxatu nahi duenak, ...
 - a. ezin du argirik piztu, baina bai musika eta irratia entzun.
 - b. ezinbesteko du ilunpetan egotea eta isiltasun osoan.
 - c. argia pizteko, musika entzuteko eta filmak ikusteko aukera du.
5. Bainuontzi honetan...
 - a. bost ordu egon, eta gau osoan lo eginda bezala geratzen zara.
 - b. ordubete pasa, eta bost orduz lo eginda bezala geratzen zara.
 - c. aurretik bost orduz lo eginda, sartzea da onena.



HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- a	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---

ENTZUMENA

2. TESTUA

Euskadi Irratian lanean ongi kontzentratzeko arauak edo aholkuak entzungo dituzu.

Entzun kazetariaren informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

0. Zein da kontzentratzeko ordurik onena?

- Goizeko 7:00etan hasi eta 12:00ak arte.
- Goizean 8:00etatik eguerdira eta 19:00etatik aurrera.
- Goizeko 8:00etan hasi eta jarraian 19:00ak arte.

1. Nola komeni da atsedeen hartzea?

- Ordu erdiro edo, bost minutu inguruko etenak eginez.
- Bost hamar minuturo, ordubeteko eten luzeak eginez.
- Hiru ordu laurdenero edo, ordu erdiko etenak eginez.

2. Nola planifikatu behar da lana?

- Kontzentrazio handia eskatzen duten gauzak eta kontzentrazio gutxi eskatzen dutenak tartekatuz.
- Kontzentrazio handiena eskatzen duten gauzekin hasi eta, ondoren, bestak eginez.
- Kontzentrazio gutxien eskatzen duten gauzetatik hasita, ondoren zailagoak eginez.

3. Lanerako leku egokia nolakoa da?

- Hamabost gradu inguruko tenperatura duena eta kolore biziko argiak dituena.



HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA

- b. Hogei gradu inguruko tenperatura duena eta argi zuri edo urdinxka duena.
- c. Hogei gradu inguruko tenperatura duena eta argi horixka duena.

4. Zer komeni da hartzea?

- a. Kafeak lagundu egiten du kontzentratua egoten.
- b. Kafeak eta tabakoak ez dute kontzentrazioa oztopatzen.
- c. Hobe kaferik ez hartzea, urduritasuna sortzen duelako.

5. Kontzentratzeko musika egokia zein da?

- a. Edozein kantu ezagun, baina letra erraza duena.
- b. Musika klasikoa eta hitzik ez duena.
- c. Klasikoa edo modernoa, baina letra gutxi duena.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- b	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

1. TESTUA

Guggenheim Museoaren **informazio orriaren** zati bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Testuak ematen dizun informazioarekin taula osatu. Informazioa **zuzena bada, idatzi**

✓ **zeinua** dagokion laukian, adibidean egiten den bezala.

Informazio orokorra

Guggenheim Bilbao Museoa

Abandoibarra Et. 2 48001 Bilbo.

www.guggenheim-bilbao.es

Ordutegia:

Asteartetik igandera 10:00etatik 20:00etara. Astelehenetan itxita.

Uztailean eta abuztuan Museoa astelehenetan ere zabalik egongo da.

Museoa itxi baino ordu erdi lehenago itxiko da txartel-leihatila. Aretoak 19:45ean hasiko dira husten.

Tarifak

Nagusiak: 12 €

Erretiratuak: 7 €

Azterketa deialdia: **2007ko maiatza**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA

Ikasleak: (<26 urte) 7 €

Taldeak: (gutxienez 20 lagun) 10 €
Heldu batekin datozen 12 urtetik beherako haurrak dohainik.

Sarrerak Museoan egun osoan zehar sartzeko eskubidea ematen du, eta sartu-irteteko aukera dago. Museoan berriro sartu nahi izanez gero, galde egin Bisitariarekiko Arreta zerbitzuko kideei. Programazio-premiengatik zenbait gune itxi litezke, aldez aurretik jakinarazi gabe. Barkatu eragozpenak.

Sarreraren salmenta aurreratua

Sarrerak aldez aurretik erosteko aukerak:

- Museoko leihatilan bertan, bisitaldia egingo den eguna aurretik jakinez gero. Ez da onartuko emandako sarrerarik itzultzerik.


- BBK-KO Teleka eta La Caixaren Servicaixa sistemetan eskura daitezke, Museoaren Lagunen txartel-leihatila berezian.
- 20 pertsonatik gorako taldeek 94 435 90 23 telefonora deituta eskura ditzakete sarrerak, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00ak arte.

Taldearen onarpenak

Taldeentzako sarbide berezia dago itsasadarrari begirako fatxadan. Gidaridun bisitaldirako erreserbarik gabe datozen 20 pertsonatik gorako taldeek museora sartzeko baimena eskatu beharko dute, aldez aurretik, Taldeen Onarpenerako atalean, 94 435 90 23 telefonoan, asteazkenetik ostiralera arte, 9:00etatik 14:00ak arte.

Pertsona ezinduak

Museoak igogailuak ditu ezgaitasunak dituzten pertsonak sar daitezen, baita aldapa bat ere. Aldapa hori itsasadarrari begira dagoen fatxadan dago (taldeentzako sarreran).



1. Egitekoa:

Azterketa deialdia: **2007ko maiatza**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA

Aurkitu informazio **zuzenak**, eta ✓ zeinua idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala. Zuzenak ez direnak **hutsik** utzi.

<p>Adibidea:</p> <p><i>Hurrek ez dute sarrerarik ordaindu behar, helduekin badatoz.</i></p> <p>✓</p>	<p>Astelehenetan, urte osoan museoa itxita dago.</p>	<p>Museoa itxi baino 30 minutu lehenago ixten da sarrerako leihatila.</p>	
	<p>Sarrerak hartu ondoren, ezingo dira leihatilan itzuli.</p>	<p>Egun osoz eta edozein ordutan dei daiteke telefonoz, taldeentzako sarrerak eskatzeko.</p>	<p>Taldeek sartzeko leku berezia dute eta ezinduek ere bai.</p>

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA



Guggenheim museoaren ikuspegia

HADE

2. TESTUA

Iñigo Manzisidor "Mantxi" bertsolariari egindako elkarrizketa irakurriko duzu Berriaren *Matraka* gehigarrian. Elkarrizketari galderak kendu zaizkio.

1. egitekoa

Irakur ezazu hurrengo elkarrizketa eta lotu galdera bakoitza dagokion erantzunarekin. Idatzi galderen **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala (galdera bat soberan dago).

Iñigo Manzisidor 'Mantxi' bertsolariak gozatzea du helburu hurrengo Gipuzkoako txapelketan.



1

Egia esateko, ez. Inguruan bertsolari on asko ikusten nituelako eta ni txapelketetan oso urduri jartzen naizelako. Iruditzen zitzaidan ziurrenik hanka sartuko nuela. Baina, tira, egun hartan, Uztaritzeko saiora nahiko ziur joan nintzen eta pasa nintzen. Emaizta polita izan zen.

2

Hamaika edo hamabi urterekin, etxean, aitona bertsolaria nuelako. Etxean sartu zidaten pixka bat bertsotarako harra. Hamahiru urterekin-edo bertso eskolara joan nintzen. Pello Esnalekin hasi nintzen Zarautzen, Etxebeltzen, eta hortik aurrera eskola artekoetan, Lizardi sarian eta beste batzuetan parte hartu nuen. Ondoren, "Motxen" sortu genuen, eta hor gorpuztu nuen, motzean edo labur kontatuta, nire bertsolari sena. Baina hasi, etxean hasi nintzen.

3

Koadrilako lagunekin egoteko denbora, zerbait kentzekotan. Saio asko egiten ez baditugu ere, beti daukagu zerbait bertsoarekin lotura duena: bertso eskola ez bada, saioen bat edo bileraren bat. Eta hori guztia elitekoa izan gabe, baina guri ere iristen zaigu hori. Baina kendu, txarrean esanda behintzat, ezer ere ez. Denbora hori koadrilako lagunekin egoteko, ni oso koadrila zalea bainaiz. Eta eman, berriz, gainontzeko dena. Askok eman dit bertsolaritzak. Txikitan oso lotsatia nintzen, eta orain ere banaiz, baina hitz egiteko erraztasuna, gauzak esateko aukera ere eman dit. Izan ere, edozeinek ez dauka aukera hori.

0=D

Ahal dudan guztia gozatzea, inongo dudarik gabe. Lehen esan dudan bezala, txapelketetan oso urduri jartzen naiz, ez

HADE

naiz txapelketako bertsolaria. Batzuk badira txapelketetan hazi egiten direnak, baina ni ez. Hori batetik, eta gozatzeaz gain, aurreko txapelketan, 2003koan, finalerdikora ailegatu nintzen, horra iristen banaiz, hau da, aurrekoa berdintzen badut, gustura geratuko naiz. Eta gehixeago egiten badugu, askoz hobeto!

4

Ez, beharbada, errespetua. Entzulearenganako errespetua batez ere. Ez dit sekula beldurrik eman agertokira igo eta jendearen aurrean kantatzeak. Baina errespetua bai. Pello Esnaolen bertso batek esaten duen bezala, ordaintzen duenari lotsa zor zaio.

5

Egia esateko, ni lagunarteko bertsolaritzan oso gustura ibiltzen naiz. Hala ere, unerik ederrena txapelketa batean izan zen. Agurra kantatzen ari nintzela, hotzikarak sentitu nituen, lehenengo Lizardi txapela aitonari eskaini nionean. Aitona hilda zegoen ordurako eta nik ez nuen sekula pentsatuko lortu nuena lortuko nuenik. Momentu hura oso hunkigarria izan zen..

Matraka 2007ko martxoa

1. Egitekoa:

Lotu galdera bakoitza dagokion erantzunarekin, adibidean bezala.

Galdera bat soberan dago.

- A. Zein izan da, bertsolari bezala, izan duzun esperientziarik politena?
- B. Euskal Herriko txapelketan finalaurrekoetan ikusi zintugun; espero zenuen halakorik?
- C. Bertsotan noiz eta nola hasi zinen?
- D. Hurrengo Gipuzkoako Txapelketarako zein helburu daukazu?**
- E. Inoiz sentitu al duzu beldurra oholta gainean?
- F. Norekin kantatzen duzu gustura?
- G. Zer eman eta zer kendu dizu bertsolaritzak?

Adibidea: 0=D

Erantzunak	0	1	2	3	4	5
Galderak	D					

HADE

IDAZMENA

Euskaltegiko ikasle guztiak ondorengo mezua jaso dute. Euskaltegien elkarteak bidali die mezua.


Euskara ikasten ari diren ikasleak harremanetan jarri eta esperientziak trukatzeko, bere web orria eskaintzen die. Web orrian ikasleen lanak jaso eta argitaratuko dira.

Gai honi buruz idatzi behar da:

Zein da oporretara joateko lekurik ederrena?

Irakurri mezua eta idatzi testua.

Gutxienez, **140 hitz** idatzi beharko dituzu.



bidaltzailea: **Euskal Herriko euskaltegien elkarte**

Helbidea: euskaltegi@euskalherria.net

Zein da oporretara joateko lekurik ederrena?

Ikasle hori!

Euskaltegietako ikasleak harremanetan jartzeko eta zure esperientziak trukatzeko **web orria** jarri dugu martxan.

Parte hartzeko, zure esperientzia kontatu behar duzu eta, zure ustez, oporrak pasatzeko lekurik ederrena zein den azaldu behar diguzu.

Puntu hauek erabil ditzakezu zure mezuan:

- Non dago, nolako~~a~~ da lekua, nolako~~a~~ da jendea...?
- Noiz izan zinen/joaten zara?
Norekin joaten zara? Zer egiten duzu han?
- Zergatik da leku ederra? Zer du?
- Leku horretan zuri gertatutako pasadizoren bat kontatu...

Oharra: Parte hartzaileen artean sariak zozketatuko dira. Gainera, aukera ezin hobeaz izango duzu aurtengo oporretara joateko leku berriak ezagutzeko.

HADE

Idatzi zure mezua gure helbidera: euskaltegi@euskalherria.net.

Zure lanaren zain gaude!!!

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula (**140 hitz**).
- Idazteko boligrafoa erabili.
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun

Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)

HADE

LEHEN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

LEHEN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	35 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
GUZTIRA		%100	gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu beharko dituzu eta 30 proba bakoitzean. Proba idatzian, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean, eta, ahozko proban, 15 puntu mintzamenean.

Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Emaitza bakarra emango da: **GAI/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.